



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
206.zkia . 2008ko urtarrila



JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNDUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



CLUB NAUTICO HONDARRIBIA

P.º R. Iribarren, s/n - Apartado, 88 - Teléf. 943 642 788 - Fax 943 642 894
e-mail: cnhondarribi@terra.es
20280 HONDARRIBIA

MUSIKA ESKOLAREN IDAZKETA PROIEKTUA ESLEITU EGIN DA

Musika Eskolaren eraikin berria hurbilago dago. Udalak Abr/+Arquitectos enpresari esleitu dio proiektuaren idazketa lehiaketa. Erabaki hau hartzeko prozesuan Udaleko talde politiko guztiek parte hartu dute, baita beste zenbait eragilek ere, Musika Eskola bera, Harresi Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarte eta Hondarribiko Historiaren Lagunen Elkarte kasu.

Orotara 22 proiektu aurkeztu dira lehiaketara, eta denen artean hondarribiar enpresa izan da proiektua idazteko ardura jaso duena. Lurraren mailan egongo den solairuaz gain, beste hiru egingo dira gorantz, eta bi beheruntz, lurpean.

Musika Eskolarentzat lurpeko planta bat, sotoa eta lehena izango dira. Goiko bi planten erabilpena oraindik zehazteke dago, nahiz eta kulturizaera izango dutela ziurra den.

Uda iritsi aurretik

Proiektua idazteko 16 asteko epea dago, eta aurrekontua 69.000 eurokoa da. Udalean udako hilabeteak iritsi aurretik idatzita egotea espero da. 2008ko bigarren seihilekoan eraikuntza lanen lehiaketa egitea aurreikusten da, gerora lanak hasi daitezen.

Aitor Kerejeta alkatearen hitzetan "aspaldian denok itxaroten ari ginen proiektuarekin hasteko aukera dugu. Hondarribiko enpresa bati eman diogu proiektua idazteko aukera. Uda aurretik amaitua egotea espero dugu, eta gero obrak egiteko lehiaketa hasiko da".

"Eraikinak Alde Zaharreko ingurunearekiko errespetua mantenduko du uneoro. Oso kontuan izan dugu beti Denda kalean egongo den eraikin bat dela, eta baldintza hori funtzionalitatearekin eta eraginkortasunarekin uztartu nahi izan dugu" amaitu zuen Kerejetak.



Musika Eskola berriak egitura hau izango du

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Vanessa Hernández Caverio

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK URTARRILEAN ETA OTSAILEAN

13- Mayi Martinez - Almirante Alonso kalea, z/g	943 642191
20- Iraola - San Pedro, 5	943 641027
27- Sagrario Fiz - Sokoa	943 644316
3- Almajano - Mendelu, 26	943 640068
10- Alameda - Harresilanda, 9	943 645798
17- Erauskin - San Pedro, 22	943 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK URTARRILEAN ETA OTSAILEAN

13- Martinez - Kale Nagusia, 17	943 641212
20- Arratibel - Mendelu auzoan	943 641975
27- Garmendia - Portuan	943 641136
3- Martinez - Kale Nagusia, 17	943 641212
10- Arratibel - Mendelu auzoan	943 641975
17- Garmendia - Portuan	943 641136

Kultura departamentuak inauterietako lehiaketak antolatu ditu

Udaleko Kultura Departamentuak beste urte betez, Inauterietan batera, Karroza, Konpartsa eta Mozorroen lehiaketak antolatu ditu. Hiru atal desberdin dira, baina denak desfile berean doaz, Inauteri igandean, otsailaren 3an goizeko 11.30etatik aurrera Kultura Departamentuak antolatzen duena.

Lehiaketa hauetan parte hartzeko, eskaera egiten duten talde guztiek egin dezakete, horretarako izenemate orria bete behar dute Udaletxeko BAZ bulegoan [astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 18:00etara, eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara] urtarilaren 21a baino lehen. Talde bakoitzak ordezkari bat izendatuko du eta arauak betetzeaz arduratuko da. Ezinbestekoa izango da parte hartzen duten karrozek inauteriko igandean ondorengo ibilaldia egin dezaten: San Juan de Diosen irteera, Sabin Arana, Beñat Etxepare, Matxin de Artzu eta San Pedro kalea.

Karrozen lehiaketan, hasieran, parodia egingo duten karrozek desfileatuko dute eta ondoren dantza taldeak daramatenek. Hori dela eta, bi zozketa egingo dira. Puntuatzeko garaian ondoko ezaugarriak kontuan hartuko dira: originaltasuna, aurkezpena eta giroa (umorea, musika, etab.). Parte hartzen duten karroza bakoitzari gehienez 600,00 €ko saria emango zaio.



Igandeko desfileak herriko kaleak alaituko ditu

Hasieran, parodia egingo duten konpartsek desfileatuko dute eta ondoren dantza taldeak daramatenek. Konpartsak hiru mailatan banatuko dira. 16 lagunetik 50 bitartekoak, 51 lagunetik 100 bitartekoak eta 101 lagun baino gehiagokoak. Parte hartu nahi duten konpartsek, gai bera adierazi beharko dute. Esan ere, puntuatzeko garaian arestian aipatu ditugun ezaugarriak kontuan izango direla, kategoriatarako balio baitute.

Azkenik, Mozorroen lehiaketan, bi kategoriatan desberdintzen dira, norbanakoak eta taldeenak. Norbanakoko partaideek ez dute alde

aurretik izena eman beharrik izango baina konpartsetatik urruti joan beharko dute epaimahaiak ondo identifikatu ditzan. Hiru sari banatuko dira: 150,00 € eta oroigarria, 118,00 € eta 100,00 €. Amaitezko, Taldekakoen kategorian, gutxienez zazpi pertsona eta gehienez, hamalau izango dira. Epaimahaiak dirulaguntza emango die partaide guztiei, batez ere, ondoko ezaugarriak kontuan hartuta: aurkezpena, originaltasuna eta girotzea.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Hondarribiak Itsas-Herrien Elkartean sartzeko gonbitea jaso du

Aitor Kerejeta Hondarribiko Alkatea, Lekeition izan berri da "Itsas-Herrien Elkarte" lan-bileran batean. Elkarrekin honek Galiziako, Asturiaseko eta Kantabriako itsasertzeko udalerriak biltzen ditu eta bere helburuen artean dago euskal udalerriak elkartearen sartzeara.

Bileran Francisco Gonzalez Mendezek, Cudillerok alkateak eta Elkartearen Presidenteak baita Lekeitiko Alkateak, Bermeoko eta Getariako Udaleko ordezkariak ere parte hartu dute.

"Elkartearen ideiak eta helburuak, batetik, eta azken urteetan egin-dako lanak, bestetik, azaldu dizkigute. Era berean, euskal udalerriek proiektuan parte hartzearen aldeko jarrera adierazi digute. Elkartearen udalerri guztien ardatza garbi dago, hau da, itsasoa eta arrantza. Elkarrekin eman nahi dio arrantzale izaerari esparru berezia. Horretarako proiektuak sustapen turistikoaren barnean du, alegia, arrantza mundua eta turismoa uztartzeko asmoa dago. Orain Lekeitio, Bermeo, Getaria eta jakina, Hondarribia. Eusko Jaur-laritzarekin aztertu behar dugu proiektua, eta gure parte hartzearen alde onak eta abantailak aintzat hartze-ko" esan zuen Alkateak.

2001ean sortu zen Elkarrekin eta gaur egun hamahiru udalerri daude bertan. Galiziakoak: Baiona San Xenxo, Sada, Ortigueira, Viveiro eta Ribadeo. Asturiasekoak: Cudillero, Gijon, Rivadesella eta Llanes. Eta Kantabriakoak: San Vicente de la Barquera, Santoña eta Laredo.



Bilkuraren une bat

Mendelun hirugarren adineko- entzako egoitza eta eguneko zentroa eraikiko da

Urteko azken Osoko Bilkuran, 2008ko aurrekontua onartzeaz gain, Gibeleta-Betherramen hirugarren adineko pertsonentzat egoitza eta eguneko zentrua egiteko proiektuaren lehen urratsa eman zen.

EAJ, EA, PSE-EE eta EB-Aralarren aldeko botuekin eta PP eta ANVren abstentzioarekin, Betherramengo parrokiaren inguruetarako Arau Subsidiarioen aldatetari hasierako onespina eman zion Udalbatzak. Gauzak horrela, gaur egun futbol zelaia dagoen lekuan 110-120 plaza inguruko egoitza eraikitze-ko proiektua gauzatuko da.

Aitor Kerejetak, alkateak, prentsaurrekoan adierazi duenez, "Jose Gogorza apaizak bultzatu du eremu honetan ekimen pribatuak egoitza eraiki ahal izateko proiektua eta berari publikoki eskerrak eman beharra dago. Gogorzak hizketaldiak izan ditu zenbait enpresarekin hiru urtetik hona eta Udalak eta baita Foru Aldundiak ere, Irun eta Hondarribiareako onuragarria izango den ekimen hau bultzatu nahi dute.



Mendelu auzoan eraikiko da egoitza

moda
a-dos

Calle Zuloaga, 14
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 19 69

AXOLA

INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542

Kontsumorako uren kalitatea internez bidez kontsulta daiteke

Internet bidez egunero kontsumitzen dugun ura kontrolatzeko aukera dugu 2008. urtean. Sarean ibiltzeko aukera daukatenez behintzat, eguneroko uraren kalitatea nolakoa den ikusi ahal izango dute ordenagailuaren aurrean jarrita, etxetik mugitu gabe.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gure eguneroko kontsumoko uren informazio eguneratua edukitzeko sistema abian jarri du. EKUIS sistemaren barnean, Euskal Autonomi Erkidegoko Kontsumorako Uren kontrol eta Zainketa osatzen duten guztiek parte hartzen dute, kontrol eta zainketa unitateak, laborategiak eta osasun publikoko zentroak kasu, informazio erregularki sartu eta mantentzeko ardura dutenak.

www.osanet.euskadi.net web gunean kontsumorako uren jatorri eta tratamendua kontsulta daiteke, udalerrria, herria eta hornidura-gunea kontuan hartuta, azken hiru urteetako analisi-buletinak, baita hornidura-guneen kalifikazio sanitarioa ere.

Birgaitze lanak Minasoroeta kalean

Otsailaren bukaerarako amaituko dira Minasoroeta kalean hasi diran birgaitze lanak. Pasa den astean hasi ziren, eta espaloiak konpontzeaz gain, oinezkoek errepidea igarotzeko paso bat jarriko da, Damarriko gune komertzialerako irigarritasuna errezteko.

Urbycolan y Campezo enpresak arduratzen dira lan hauetaz, eta

horretarako 50.000 euroko aurrekontua daukate, eta bi hilabeteko epea.



Minasoroeta kaleko lanak

Hiru enpresari hondarribiarrei omenaldia egin zaie



Enpresariei harrera egin zieten udal ordezkariak

Hondarribiko Udalak herriko hiru enpresari omendu zituen abenduan, burutzen duten lana eskertzeko asmoz. Juan Gonzalez, Angel Iglesias eta Javier Lopetegi izan ziren omenduak, Aitor Kerejeta, Ion Elizalde eta Juan Mari Altuna udal ordezkariak.

Aitor Kerejeta alkateak "burutzen duten lan bikaina" eskertu zien hiru enpresariei. "Hauetako bik urte asko daramatzate Juan Gonzalezek eta Angel Iglesiasen hain zuzen, eta hirugarrena, Javier Lopetegik, etorkizun oparoa dauka aurrerantz.".

Hiru enpresariak "Udalaren portaera eskertu zuten. Guztioi gustatzen zaigu gure herrian omenaldiak jasotzea. Biziki eskertzen dugu eta aurrera jarraitzeko bultzada suposatzen du guretzat".



Higer Bidea, nº 6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Telefonia mugikorren antenak arautzeko ordenantza bat egingo da



Ion Elizalde zinegotziak zuzendu zuen bilera

Duela egun gutxi Udaletxeko Areto Nagusian telefonia mugikorren inguruko bilera ireki bat ospatu zen. Udala-ren ordezkari bezala Ion Elizalde lehen alkateordea egon zen, eta bertan bildu ziren ia hogeitahamar pertsona, horien artean bizilagun, mediku, instalatzaileak... egon zirelarik.

Bileran Elizalde "Udalak hartu duen konpromezua" aditzera eman zuen. "Telefonia mugikorreko antenen inguruan ordenantza bat egingo dugu, beharrezkoa dela uste baitugu. Hiritarrekin bilera gehiago mantenduko ditugu, hau bezala, bereziki gai honetan adituak direnekin".

Gainera, zinegotziak esan zuenez, "mapa radioelektriko bat egingo da, beharrezkoak diren neurketekin. Horrelako neurriek nondik-nora gabiltzan esango digute, eta hortik aurrera erabaki bat edo beste har daiteke".

Udal ordenantza egi bilakatu arte, Udaletik ez da baimenik emango antena gehiago jartzeko.

Hiriko nekazal bide batzuk birgaituko dira

Construcciones Dumboa izango da nekazal bideen zorua hobetu edo birgaitzeko ardura izango duen enpresa. 263.840.000 euroko aurrekontuarekin, enpresak hilabete bateko epea dauka denetara 1.085 metroko luzera duten bideak hobetzeko.

Lur zorua hormigoiarekin tratatu beharko da, eta inork laprast egin ez dezan beharrezko neurriak hartuko dira. Aurretik, bidearen ertzetan dauden hosto eta adarrak garbituko dira.

Hobetuko diran bideak hauek dira: Beko Errotako bidea (400 metro), Gibeletakoa (200 m.), Zarautzeneatik Tolartegira (380 m.), Txiplaoaunditik Txendoneara doana (520 m.), Goikoerrotakoa (125 m.) eta azkenik, Mottenea eta Tristanberri lotzen ditueena (180 m.).

Landa Garapeneko zinegotzi den Gregorio Berrotaran pozik da emandako urratsarekin.

"Duela urte batzuk hasitako lanarekin jarraitzen dugu, uste baina jende gehiagok erabiltzen dituen bideak dira. Era berean, iaz burutu ziren ekintza tamalgarriak aurtan ez errepikatzea espero dugu. Pertsona batzuk egindako lanak urratzen saiatu ziren automobilekin. Lanak direla eta bide bat itxita badago, zerbaitegatik da, azpiegiturak hobetu nahi direlako".



Denetara 1085 metro birgaituko dira



**BARRI
ONDARRIBI**

**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Hilabete batean hasi daitezke Muliateko etxebizitzak obrak

Muliateko etxebizitzak eraikuntza gero eta hurbilago dago. Datozen asteetan hasiko dela dirudi, orain artean lur-banaketa inguruan sortu dira alegazio edo kexak aztertu ondoren. Gogoratu behar da, 63.000 metro karratu inguru honetan 400 etxebizitza inguru eraikiko direla, horietatik 260 babestutakoak.

Lanak hasten direnean, lehen urratsa, behin urbanizazioa definituta, salmenta libreko etxeak eraikitzea izango da. Ondoren etorriko dira babes ofizialekoak, baina aurretik Eusko Jaurlaritzarekin alokairu sozialean jarriko diren etxebizitzak kopurua finkatu nahi du Udalak.

Pasa den legealdian lortutako akordio baten ondoren, Udalak 18 etxebizitza izango dituen bloke bat izango du beretzat, baita hiru lur-zoru ere. Gainontzeko lurrak, eraikuntzan ari diren bi enpresa eta mendealdeko saihesbidearen ondoan lurrak kendu zizkieten zenbait lur-jabeenak dira.



Muliateko etxebizitzak inguru honetan egingo dira

Loraitz hartzaindegia eraikuntza egiteko hamabi lan aurkeztu dira



Hartzaindegia datozen hileotan hasiko da eraikitzen

Loraitzeko hartzaindegia eraikuntza proiektu lehiaketa deialdira hamabi lan aurkeztu dira. Hilabete beteko epean epai-mahaiak guztien artean aukeratu du; ondoren urte eta erdiko epea aurreikusten da lana burutzeko. Ixabel Olazabalek Hezkuntza zinegotziak esan duenez, "2010 urterako hartzaindegia abian egotea espero dugu".

Hartzaindegi berriak 105 haurrentzako kapazitatea izango du, 0 urtetik bat bete arte, eta urte batetik bira antolatuko direlarik. Kopuru honekin hirian dagoen eskaria betetzea espero da, ez baita ahaztu behar Udalak hartzaindegi pribatuaren eta publikoaren arteko eskaintzaren %40 eskaini behar baitu.

Proiektuaren aurrekontua 2,18 milioi eurokoa da. Kopuru honen barnean, lurpean egingo den aparkalekua dago, 30-35 autoentzat, 9'14 metro karratuko lekuan. Beheko solairuak 1159 metro karratu izango ditu, hamar gela egongo direlarik. Lehen solairuan aldiz, bulegoak egiteko 65 metro karratu gorde dira.

Hartzaindegia Haurreskolak partzuergoaren barnean sartuko da, eta elkargo honen arabera egingo dira beharrezkoak diren hornikuntza lanak, sehaska, sukaldea, jostailuak, altzariak...

JATETXEA
LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema



ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

121 gaztek parte hartu dute "mimarte" programan alkoholaren kontsumoaren inguruko prebentzio programan.

Abenduaren 18an, bai Talaia Institutuan bai Ama Guadalupekoa Ikastetxean "MIMARTE" programa aurrera eramanda DBHko 2. mailako ikasleekin.

Peter Roberts mimoaren laguntzarekin gazteek alkoholaren kontsumoaren inguruko gogoetak egiteko aukera izan dute.

Programa hau Hondarribiko Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak antolatzen du ikastetxeekin batera eta Eusko Jaurlaritzako laguntzarekin.



Peter Roberts gure herriko ikastetxeetan egon da

Programaren helburuak ondorengoak dira:

1. Mezu prebentiboak transmititzeko metodologia berri eta hunkigarri bat -Mimoa- erabiltzea.
2. Eguneroko egoeren antzezpenaren bitartez, gehiegizko alkohol kontsumoaren inguruan gogoeta kritikoa bultzatzea.

3. Alkohol kontsumoari loturik doazen arriskuen prebentzioa sustatzea.

4. Ikuskizunak iradokitzen dituen gaien inguruan eztabaidak sortzeko komunikazio bide bat eraikitzea.

5. Mimoaren eta antzerkiaren mundura hurbilduz, alternatiba osasuntsuak bultzatzea.

Gazteek gogoz parte hartu dute, eta ongi pasa ez ezik alkoholaren kontsumoaren inguruko gogoetak ere egin dituzte. Prebentziorako gunea sortuz, Peter Roberts-ek lan bikaina egiten du, arina eta oso mezua zuzena erabiliz.

Baina lana ez da hemen bukatzen, horrelako programak ikastetxeetan aurrera eramateak baditu abantaila asko heziketa eta prebentzioari begira, tutoreek gazteekin gaia lantzen jarraituko baitute ondorengo tutoretzetan.



Haurrek asko ikasi zuten mimo ospetsuarekin



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Erdi Aroko hirien sareak kide berriak ditu

Erdi Aroko Hirien eta Herrien Sareak kide berriak ditu. Hilaren 16an Oloron-en burututako ekitaldi batean egon ziren Aitor Kerejeta Hondarribiko Alkate eta aipatutako sareko presidentea, Guillermo Echenique Bidasoa Bizirik-eko Kontseilari Delegatua, eta Maribel Lorenzo zuzendaria.

Aipatutako herri hauek Nérac, Sarlat, Saint Emilion, Donibane Garazi, eta Oloron Ste Marie dira, azken hau izango delarik lehen urtean presidentziaz arduratuko dena. Bost herri hauek bere autonomia eta estatutuak izango dituzte, baina amankomuneko proiektuetan lan egingo dute eta sarearen hedapenean elkarrekin ariko dira.

Kerejetak ekitaldiaren "garrantzi handia" azpimarratu zuen. "Sarea sortu genuenean genituen helburu nagusienak lortzen ari gara, Europako hegoaldeko sare bat sortzea hain zuzen. Espainia eta Frantziako estatuez gain, Portugaletik etorritako hiriek izena ematea da asmoa".

Berritasun bezala, "denon artean Europar Batasunera proiektu berezi bat aurkeztea erabaki genuen. Datorren hilaren 31n, Fitur-en asanblada orokor bat ospatuko dugu eta bertan, Europatik 2007-2013 urteetarako bideratutako laguntzak lortzeko urratsak emango ditugu. 19 hirik parte hartuko dugu" amaitu zuen Kerejeta alkateak.



Sareko kide berriak, Oloron-en egindako bilkuran

Kirol kaiko erabiltzaileak pozik daude zerbitzuekin

Kirol Kaiari aldizkari honetan azken aldiotan eskaintzen diogun atalean, oraingoan, bertan ontzi bat duen pertsona batekin egon gara, bertan eskaintzen zaizkion zerbitzuen inguruan zerbait gehiago jakin ahal izateko. Askotan Kirol Kai bertatik bidaltzen dizkigute datuak, baina jakin dezagun zer dioten erabiltzaileek..



Luzera desberdinetako ontziak daude Kirol kaian

"Nire ontziak *Teretres* du izena, 15 metroko luzera du. Orain artean behintzat, oso pozik nago ontziarekin, ongi baitabil. Kirol Kaia egin behar zenean eman genuen izena, aurretik Kai Berrian lotuta baikenuen, itsasoak dauzkan arriskuekin".

Kirol Kaiak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan galdegina ondoren, "ezin gaitzeki kexatu. Dena daukagu eskura eta hori oso eskertzekoa da. Urtero ontziari egin beharreko mantenimendua hemen bertan egiten dugu. Beharrezkoak diren gailuak ere bertan eros ditzazkegu, ez bakarrik gasoila, baita piezak edota jatekoa ere. Azken hileotan egin diren jatetxe eta elkarte berriak ere zerbitzu bikaina eskaintzen dute".

"Horrelako azpiegitura bat aspaldidanik behar genuen Hondarribian. Dena da hobetzeko modukoa, hala esaten da behintzat. Zerbait gehitzekotan, agian interesgarria izango litzateke WI FI gunea apur bat zabaltzea, zenbait tokitan ez baitabil oso ongi".

Euskategiko ikasle baten hausnarketa

Ez dakit nola, baina urtero garai hau iritsi orduko egoera berean harrapatzen dut neure burua: inork ezer esan gabe urteberrirako asmo berriak jarri nahian...Egia esan, berri-berriak ere ez dira zeren azken finean ni naizen honek urtero gauza ber-berak eskatzen baitizkio etortzen zaigun urte berriari, azken aldi honetan, behintzat. Urte berriak ekarriko balizkigu bezala gure nahiak.

Txikitan galdetu izan balidate zer desio nuen zetorren urte berrirako seguru nago dirua edota antzeko zerbait esango nukeela. Eta hori gure gurasoek beste balio batzuetan hezi nahi izan gintuztelarik...Ez dut oso argi buruan baina noizbait maitasuna ez faltan izatea eskatu izana ere gogoan dut (nerabezaro inguruan edo). Beste garai batean, hau nerabezaroa pasa ondoren, ikasketak ondo bukatu eta lana aurkitzea izan zen nire urte berrirako nahia. Baina badira urte batzuk, egia esan, urte dexente, gauza bera eskatzen dudala: osasuna. Nekez lor dezakegu beste edozer osasunik ez daukagunean. Nola aldatzen diren egoerak, beharrak edota lehentasunak! Ez al da hala?

Egia da, egia denez, oraintxe aipatu ditudan guztiak oro har eskatzen ditugula, ametsetan edo. Baina guk geuk ezin ezer asko egin haiek lortzeko. Badira, aitzitik, beste desio tiki edota ez hain tikiak, urte berrian lortzeko helburu bihurtzen direnak. Eta hauek lortzeko gure asmo eta benetako gogoia premiazkoak dira. Hauen artean oso tipikoa da erretzeari uzteko asmoa. Baina oso zaila izaten da horrelakoak lortzea, eta horren seinale da urtea pasa eta hurrengo urteberrian berriro gabiltzala asmo on hauekin bueltaka.

Lehen aipatu dudana bezala, nik, oro har, osasuna nahiko nuke datorren urterako (eta datozen urteetarako, noski, baina goazen banan-banan). Osasuna niretzat eta nire familiarentzat. Eta, bestaldekik, bada urte pare bat beste gauzatxo bat ere egin nahi izan dudana, baina lortu ez dudana: pittin bat argaldu nahi nuke. Beno, pittin bat esan dut baina, denbora pasa ahala, gero eta gehiago pisatzen dut eta non eta ez dudana nire kremlera zabal hau ixten ez dut nire helburu hau lortuko. Hau hala izaki eta pentsatzen hasia naiz datorren urtera arte itxoin beharrean, aurtan bertan hastera neure burua pixka bat zaintzen eta gutxiago jate. Neure gorputzak eta neure osasunak (urte berrirako asmoa ere bada) eskertuko didate. Itxaropena badut oraingo honetan lortuko dudana. Ezin eta alaiago jartzen naiz pentsatze hutsarekin.

Arantxa Larrarte

Euskategiko ikaslea



Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala
Juan Laborda 2, behea
20280 Hondarribia
Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92
E-mail: aisebidasoa@euskalerria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557



Yolanda Sarasola kantinera eta Ignacio Iraola, 1983. urteko irudi batean

Olearso lagundiak bere historia biltzen duen liburua argitaratu du

Hondarribiko Alardeko Olearso Lagundiak 80 urte bete ditu. Hori ospatu eta gogoan gordetzeko, urte guzti hauekako historia biltzen duen liburua argitaratu berri du. 138 orritan, historia, pasadizo, kantinera, kapitain, bandera eramaleen berri ematen da. Egileak Lagundiko bi kide izan dira, Denis Alvarez eta Aitor Etxaniz. Lehenak testuak koordinatu ditu eta bigarrenak, argazki eta maketazioa. Aurkezpena urtearen amaieran egin zen Zuloaga Etxean.

Uste baina gogorragoa izan al da liburua egitea?

Bai. Hasiera batean Alardea aurretik aurkeztea zen gure asmoa, baina hala egingo bagenu, aurtengo kantinera kanpoan utzi beharko genuke, eta egokiago iruditu zaigu Amaia Gezala argitalpenean sartzea. Horregatik atzeratu da gehienbat liburua.

Zer izan da gehien kosta zaizuen?

Ez da erraza izan, Alardearen inguruko idatzizko informazio iturriak ez baitira ugariak eta, gainera, hauek datu zehatz gutxi azaltzea nahiko ohikoa da. Argazkiak bildu eta batzuei eta besteei galdetzea

izan da lanaren metodologia. Elkarrizketa ugari egin behar izan ditugu baina azkenean lan on bat egin dugula uste dugu.

Zer jasotzen da Olearso 1927-2007 liburuan?

Liburuan Olearsoren historia eta honen inguruko pasadizoak biltzen dira. Kapitain izan diren guztiak, bandera eraman dutenak eta nola ez, kantinerak. Ahal den argazki gehienak sartu ditugu, eta hauen identifikazioa egiten saiatu gera. Agian hau izan da lan gehien suposatu duena. Gainera, Olearso, musikak bereizten duen konpainia denez, CD batekin lagundu dute urteurrena ospatzeko egin den lan hau.

PANADERIA - OKINDEGIA
ARRATIBEL



" EGURREKO LABEA "

Barrio Mendelu - C/ Zubieta, 12
Telf: 943 64 19 75 - HONDARRIBIA



Cafetería - Restaurante
faro de higer

PLATER KONBINATUAK - EGUNERO MENUA
ARRAINAK - HARAGIAK

Carretera del Faro, 58 - Teléfono 943 64 01 94
20280 HONDARRIBIA



Ezkerretik eskubira, Aitor Etxaniz, Alfredo Videgain eta Denis Alvarez.

Arg: Floren Portu

Kantineren argazkiak ez dituzue urtekako kronologia jarraituz egin. Zergatik? Zenbat ale egin dira?

Ez dugu urtez urteko ordena kronologikoa jarraitu eta kantinerak familien arabera bildu ditugu, ugari baitira Olearson amona, alaba eta biloba kantinera izandakoak, eta halako kasuak bereiztea interesgarria iruditu zaigu. Konpainia txikia izan da beti Olearso, eta horrelako kasu bat baino gehiago gertatu da, liburuan ikus daitekeen bezala.

500 ale egin dira, eta herriko liburudendetan jarri ditugu salgai, 20 eurotan. Orain artean behintzat, salmenta uste baina hobeto doa. Berrehun argazki inguru biltzen ditu Olearso Lagundia 1927-2007 liburuak, bere sorrerako urtetik hasi eta gaur egun arte. Kantinerak, kapitainak, bandera eramateko ardura dutenak, eta nola ez, Lagundia osatzen duten kide guztiak eta bere inguruan era batera edo bestera laguntzen duten hondarribiar eta bisitariak. Lan bikaina lortu dute, zorionak eta segi aurrera!

podologoia

Unai Ortiz

kiropodia - quiropodia
ortopodologia - ortopodologia
ordenagailu bidezko miaketa
biomekanikoa
exploración biomecánica
computerizada

Matxin de Arzu 10, 2 bajo
20.280 HONDARRIBIA

Tel: 943 111 946
www.unaipodologoia.com

1.690 €

EUSKO-MEKO

**Boogies
QUADS
125 cc**

1.290 €

Txiplao nº 7 - Telf 639 676 676
Hondarribia

Ator, ator mutil etxera, gaztaina ximelak jatera...



Martin Iturbe

Urte garai honetan gure artean kantatu ohi den honek, albiste atsegina igorri du gure belarrietara. Gaztain bera protagonista delarik, etxeok elkartzea zaigu helburu. Alde batetik, txikitako kontuak gogorarazten dizkigu, garai haietan jasan behar izan genuen gosearen oroimenez. Gaztainak eskeintzen zigun lehenengo albistea, eskola-bidea utzi eta ale apal hau biltzera basora joan gintezan izan ohi zen. Eskolatik piper egiteak ere bazuen bere kroxka.

Festa-giro bilakatzen zitzaigun gaztain-biltze eguna. Goizeko lehen orduetan, etxeok gizaseme sasotsuenak basoratzen ziren, haga luzeak eskuetan, abar-muturretan itsasiak zeuden moskotsei astindu bizia eman eta, ume taldea iritsi aurretik lur-zoru zabala lanerako prest utziz.

Gaztain-aroak bazituen bere alderdi bitxiak. Besteak beste, urteoro entzun izan ohi zen, hemen edo han, gaztain-astintzailereren bat erori eta heriotzen bat gertatu zelako. Gerezi-garaian ere gauza bera gertatu ohi zen. Izan ere, bai gaztainondoa, bai eta gereziondoa ere, abar usteleko arbolak bai dira.

Guretan mota askotako gaztainak ezagutzen genituen. Abuztuaren azken egunetan, 'San Agustin' gaztainari begira jartzen ginen. Ondotik, ezpata bezalako gerrondo luzekoak, edota tripazai-antzeko lodikoteak, urte luzeetako testigu. 'Txertaka', 'txakarroa', 'bixkai-gaztain', 'iñurria' etabar. Zoritzarrez, aspaldi galdu ziren bertakoak genituen hauek. 'Tinta-gaitzak' jo zituen, eta goitik behera egiten zuten gehienek. 'Gaztain japonesak' bere zituzten gureak zirenak ezkutatu zirenean; gaitzaren aurrean gogorragoak omen ziren.

Zena zela, oihera eta istilu, gaztain biltzeari ekiten genion, gurasoek prestatutako 'matxardak' eskuetan genituela, 'moskotsaren arantza bixiek' eskuak biziki zulatzen bait zizkiguten. Eguerdiko bazkaria basoratu aurretik, pila ederra egina izaten zen. Ondorengo egunetan mandioca eramateko prestatua.

Jaki apal eta bitxia gertatzen zen gure baserrietan gaztaina. Goseak ere bere nagusitza astindu zuen garai haietan, ez zen gaizki etorri gure sukaldeetara, danbolinkadaz erretako janari goxo hura. Taloa, esnea, gaztaina... hura afaria!

Etxe-giro atseginean, ikatz bihurturiko gaztain errearen azalak eskuak belzten zituenarekin batera, mutikuok bagenituen beste amets batzuk ere.

Gose garai hartan, kale gorrian bizi ziren eskola-lagunek, begiak luze erabiltzen zituzten. Guk ere bai. Batzuk genuena, besteek ez zuten, besteek zutana, guri falta zitzaigun. 'Tiragomak' egiteko gomari buruz ari naiz.

Bagenituen, beren etxeok 'kamioa' zuten lagunak. Haiek gosea eta begi luzea jartzen zituzten. Guk, berriz, poltsikuka gaztain-ale zurituak eramaten genituen. 'Trukea zen gure tratua' eta denok pozik. 'Gaztaina gomaren truke'. Kakotxa mendian bilatutakoa. Dena den, gure txiki denboran, baserrian eta neguan, 'oinarri-jaki' genuen honek, bere protagonismoa gorde du gaurdaino. Gaur egun, gaztain-jateak ohitura bilakatu dira. Zenbait lagunarte gozo eta alaitsu ez diren egiten gure herrietan!

Idazki honen buruan ipini dudan kantuari begira, gaztain-jateari ematen zaion baliotasuna, guk gaur pentsa genezakeen baino urrutirago doa. Mutila etxetik aparte (soldaduskan beharbada), eta etxeokoen ametsa, semea beren ondoan ikustea!

Zer eskainiko ote zien gai bereizi, eta gabon afarigai? Gaztaina eta aita farrezka ikustea, amaren poz atseginez. Horra txikiaren handitasuna. Bere apaltasunean, familien bilera-bide, janari bitxi asetzaila, lagunarterako erreklamos...

Azkenik gure sukaldariak ere, era guztietako janariekin ezkontzeko, bai eta bera bakarrik postre erara eskeintzen datozkigu. Ongietorria bedi!

Eguberriak igaro dira baina gaztainaren dizdirak bizirik dirau. Hasierako hitzak, bukaeraren maratil jarriko ditut:

ATOR, ATOR MUTIL ETXERA
GAZTAINA XIMELAK JATERA
GABON GABA OSPATUTZEKO
AITAREN TA AMAREN ONDOAN
IKUSIKO DEK AITA FARREZKA
AMAREN POZ ATSEGINEZ

GAZTAIN-ARO ON ETA EGUBERRI GARAI ZORIONTSU!!!

DISCOTECA
TRUCK
HONDARRIBIA

Foru Kalea z/g

PUB
Kai zahar
Almirante Alonso, 12

kai zahar

ARRAUN ELKARTEA
GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BUILDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAIRUA
ETA GORDELEKUA

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN" !!!

Hondarribia Arraun Elkartea - Tel. 943 64 01 61 - 20280 Hondarribia

Titibiliti aldizkaria aurkeztu zen paradorean



Alarde Fundazioko zenbait ordezkari aldizkari argitaratu berriarekin

Abenduaren amaieran, Titibiliti aldizkari berriaren aurkeztuena egin zen Hondarribiko Paradorrean. Bertan bildu ziren Alardearen inguruko hainbat pertsonaia, Hondarribiakoak zein Irungoak.

Aldizkaria Alarde Fundazioak argitaratzen du eta bereziki Fundazioaren Kide eta Lagunentzat zuzentzen bada ere, Bidasoa bailarako gainontzeko hiritarrentzat irekita dago. 2000 ale egin dira, eta urtean birritan argitaratuko da. Hurrengo alea ekainerako aurreikusita dago.

Hondarribiko Alardearekin loturiko egungo eta iraganeko gaiak jorratzen ditu, eta hortaz gain, gure Herriaren historia, kultura eta tradizioak ahal den neurrian zabaltzeko euskaria izatea nahi dugu.

Aurkezpenean, besteak beste Mikel Jauregi, Beñardo Lazkanotegi, Edurra Kanpandegi, Nekane Iza

eta Lupe Olascoaga izan ziren. Nekane Iza bozeramaleak esan zuenez, "azken urte hauetan, beharrezkoa ikusi dugu Alarde Fundazioa eta bere lagun direnen arteko komunikazioa indartzea. Hori dela eta, duela urte batzuk web orrialde bat prestatu genuen, bailarako eta edonongo hiritarrek berritasun, aldaketa eta edozerren berri izan zezaten. Orrialdean sartzen den jende

kopurua ikusita, hartutako erabaki hura arrakastat bat izan zela argi dago, baina hala ere, ez da lagun denengana iristen den zerbait".

Bien bitartean, Mikel Jauregik aldizkariari "ongiotorria eman zion, eta irakurle guztiei bere iritzia ematea" eskatu zuen, "nahiz aldekoa edo kritikoa izan, denen artean hobetu behar dugun zerbait da eta".



Aurkeztuena Paradorrean egin zen

AMAITU DIREN GABONE

Duela aste batzuk amaitu zirela Eguberriak. Batzuentzat ez dira gogoan edukitzeko moduko jaiak, baina beste askorentzat oso jai bereziak dira. Horien artean sartzen dira haurrak nagusiki, euren gurasoak, eta hain haurrak ez diren gehiago ere.

Eguberrietako lehen ekitaldia argiztapena piztea izaten da. Abenduko zubian piztu zen eta Errege eguna igaro arte piztuak egon dira kontsumo baxuko argiak. Hurrengo egun berezia abenduaren 21a da, Santo Tomas eguna. Goizez barazki eta animalien azoka antolatu zen San Pedro kalean, eta jende ugari bildu zen bertan, Portuarraken Asoziazioak jarritako txosnaren inguruan.



Argazkiak: Floren Portu

N ARGAZKI LABURPENA

Abenduaren 24an, Gabon Gau egunean, haurren Olentzero lehiaketa eta Gabon Kanta lehiaketa ospatu ziren. Argazkietan ikus daiteken bezala, giro berezia eman zioten bi ekitaldi hauek hiriari.

Azkenik, abenduaren 25eko eta urtarrilaren 5eko Jaiotza Biziduna eta urtarrilaren 4ko Postaria eta hurrengo eguneko Errege Magoen kabalgatak amaiera ekarri zieten Gabonetako jai berezi hauei. Urte berria hasi da, eta ia aurrekoa baino hobea den denontzat. Zorionak eta Urte Berri on!



Bordari eta Satarka lehiaketako sariak banatu dira



Argazkia: Xabier Sagarzazu

Abenduaren 23an egin zen Udaletxeko Areto Nagusian Euskara Zerbitzuak antolatzen duen XXIII. Bordari eta Satarka literatura sarien ematea. Ekitaldi honekin, 2007ko Neguko Jardunaldiak amaitu ziren.

Bordari ipuin lehiaketan eta Satarka olerki lehiaketan, lehenengo

saria Ainara Elizondorentzat izan zen eta honen atzetik, bigarren Xabier Aldai eta Arantxa Otegi geratu ziren. Gazteen artean, Lorea Lekunoa eta Marina Elozegi saritu zituzten ipuinetan eta Ana Lupe Iridoy eta Naroa Jimenez-Ane Garcia bikotea, olerkietan.

Urtarrilaren 31 arte zabalik egongo da matrikula egiteko epea Euskaltegian

Udal Euskaltegitik jakinarazten denez, hilaren 31 bitarte irekita egongo da matrikula egiteko epea. Bertan, maila guztietan ikasteko aukera egongo da. Kontuan izan behar da, klaseak otsaileko lehen astean hasiko direla, eta urrian hasi zirenekin batera egingo dela. Euskaltegitik ordutegi ahalik eta zabalena eskaintzen zaio ikasleari.

Izena emateko, astelehen, asteazken eta ostiraletan egin beharko da, Biteri kaleko eraikinean, goizeko 9.00etatik 13.00etara eta arratsalde, 15.00etatik 18.00etara. Informazio gehiago behar izanez gero, 943 641216 telefonora deitu behar da.

mandragora studio

t. 943 644 639 m. 629 564 723
unai.mandragorastudio.com
www.mandragorastudio.com
matxin de arzu 14 20280 hondarribia

eukeniopтика

optiko - optometristak

San Pedro, 57. 20280 Hondarribia. Gipuzkoa. 943 643 805

Dendan berrikuntzak direla eta bitartean San Pedro, 26-en
(Gran Sol jatetxearen aurrean) egongo gara
Barkatu eragozpenak

Isabel Arrillagaren kartela izango da Inauterietako irudia



"De Fiesta" izeneko kartela, Isabel Arrillaga Berasarterena, izango da Hondarribiko Inauterietako irudia. Epaimahaia Aiert Alonso, Susana Zaldibar eta Isabel Berroteranek osatu dute, Xabier Tife eta Marilis Goñi Kulturako Zinegotzi eta Teknikari bezala egon direlarik. Aurkeztu diren hamar lanen artean, Irungo artistaren kartela izan da hautatua. Iazko edizioan ere berak irabazi zuela azpimarratu behar da.

Kultura eta Kirolak udal aurrekontuen ia %20 dira

Kultura eta Kirolak zinegotzia den Xabier Tife eta Ogasuneko arduradun den Juan Mari Altuna izan ziren Kultura eta Kirol departamentuetako aurrekontuak aurkeztu zutenak. Lehen saile-rako, Udalak 1.645.142 euro bideratuko ditu, eta bigarrenarako 996.733 euro.

Juan Mari Altunak esan zuenez "Hondarribiko kirol eta kulturaren aldeko apustu sendoa egin dugu, hor daude adibidez, Arma Plazako Interpretazio Gunea eta Musika Eskola, abian dauden bi proiektu".

Bien bitartean, Xabier Tifek departamentu bakoitzeko aurrekontuak zehaztu zituen. "Garrantzitsuenak gure ustez Hondarribiak behar dituen proiektuen alde egiten dugula da, bai kultur mailan, artxibo eta liburutegian, kirolak...".

Aurtengo proiektu garrantzitsuenen artean, Tifek zenbait azpimarratu zituen. "Arma Plazako interpretazio gunea, Musika Eskola, Udal Liburutegiaren eraldaketa, Artxibo eta Liburutegiaren artean egingo duten web gune berria, eta Hondarribia Futbol Elkar-tearentzat egoitza berria".



Juan Mari Altuna eta Xabier Tife zinegotziak.

PELUQUERIA MIXTA

LAIDA

C/ San Pedro nº 71 - bajo
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 64 13 59
(Mediante cita previa)

¡ Nueva Apertura !
¡ Nueva Apertura !

MA SAI

estetika
masai
zentrua

Iratz Armabarrena

San Pedro 30 20280 HONDARRIBIA
(sarrera Zuloagatik/entrada por Zuloaga)

t 943.646.320



Atunak zatikatzen ikasten dabiltza arrantzaleak



Arrantzaleek arretaz jarraitu zuten erakusketa praktikoa.

Ikastaroaren koordinatzaileetako bat Kofradiako Abad Nagusia den Norberto Emazabel da, eta azken 20 urteotan Japoniako enpresentzat lanean aritu den aditu batek ematen du.

Norberto Emazabel eta Jose M^a Salvador, La Bacaladerako zuzendariak esan dutenez, "oso esperientzia positiboa izan da. Pasa den udan hasi ginen eta garrantzitsua da gure arrantzaleei bere lanetan ahalik eta gaitasun handiena eskaintzea, denontzat izango baita positiboa".

ARRANTZALE KOFRANDIAN ABENDUAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (*Trachurus trachurus*): 11.640,00 kilo.
Makarela (*Scomber japonicus*): 281,10 kilo.
Dorada edo Urraburu (*Sparus aurata*): 28,70 kilo.
Boga (Boops boops): 3.208,70 kilo.
Zapatari (Gerris): 396,70 kilo.
Lupina (*Dicentrarchus labrax*): 0,90 kilo.
Erla (*Lithognathus mormirus*): 15.711,50 kilo.
Korrokoia (*Chelon Labrosus*): 77,80 kilo.
Muxar handia (*Diplodus sargus*): 2.593,70 kilo.
Zarakuntza (*Oblada Melanura*): 1.551,80 kilo.
Bestelakoak: 205,60 kilo.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)

Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiak ikastaro berria hasi du bere arrantzaleei begira, arraina zatikatzen erakutsi ahal izateko. Horretarako Irungo La Bacaladera enpresaren laguntza dauka Kofradiak, eta nola ez, Eusko Jaurilaritzako Arrantza Sailburuordetzarena ere.

Arrantzaleek itsasoan arrantzatzen dituzten atunak zatikatzen erakusten zaie nagusiki, kontuan izanda zer nolako balioa duten pieza hauek, eta ahalik eta gehien aprobetxatzea nahi delarik.

Ekimen hau burutu ahal izateko zenbait atun ale izoztu egin ziren udan La Bacaladeran, eta orain, enpresa honen instalazioetan burutu da ikastaroa.

La **bacaladera** S.A.U.



Hondarribiaren historiari buruzko liburu berri bat



Koldo Ortega

Joan berri zaigun urtearen amaieran gure Udaletxeko Areto Nagusian aurkeztu zen Hondarribiaren historiari buruzko liburu berri bat. **"Familia y poder en época moderna en Hondarribia"** izenburu-

pean, Juan Carlos Mora Afan historialariak idatzi du.

Berrehun orritan, euskaraz eta gaztelera, egileak zenbait familia garrantzitsu Hondarribira nola iritsi ziren kontatzen du, bes-teen artean Casadevante, Zuloaga edota Sáinz Izquierdotarrak adibidez.

Egileak aurkezpenean esan zuenez, lanaren helburua *"familia batek gizarte mailan gora egiteko mekanismo edo gailuen analisisa egitea da. Hondarribiak zuen izaerak garrantzi handia izan zuen, Gipuzkoako zenbait familia garrantzitsu bertan ezarri baitziren"*.

Ez da ahaztu behar Hondarribiak zeresan handia izan zuela plaza militar bezala, baita plaza komertzial moduan ere.

Argitalpen berri honen zergatia Udal Artxibo eta Liburutegi Zerbiztuak azken urteotan gure hiriarekin loturiko ikerketa historikoen

bultzakada asmoan bilatu behar da. Aitor Kerejeta alkateak hitzurrean dioen bezala, *"iraganik gabeko herria etorkizunik ez duen herria da"*.



Aurkezpen ekitaldian Juan Carlos Mora egilea eta Xabier Tife Kulturako zinegotzia egon ziren

aprobetxatzen ziren gizartean finkaturik zeuden portaeretat.

Liburua Elkar argitaletxeak argitaratu du eta liburutegia guztietan dago salgai 12 eurotan.

Gure hiriko kontu historikoak ezagutu nahi dituenak ezinbestekoa du liburu honen irakurketa. Interesgarria da oso gaur egun hain esanguratsuak diren abizenek zer nolako ibilbidea egin duten, eta nola




EXPERT
GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

kaialde



jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel.fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

Lankidetzarako ingeniariak, hamar urtez beharra dutenei laguntzen

Manuel Amunarriz hondarribiarra 1970 urteaz geroztik Ecuadorren dabil behartsuenen alde etengabe

Hondarribiko Udalak bere aurrekontuen %0,7 bideratzen du urtero Gobernu Kanpoko Erakundeen zerrenda zabal bati. Horietako bat Lankidetzarako Ingeniariak da, Euskal Herri mailako erakunde bat, Bidasoa Bailaran Pablo Amunarriz hondarribiarrak ordezkatzan duena. Duela hamar urte sortu zen, eta orduz geroztik, sei milioi euro kudeatu ditu Euskal Herriko erakunde desberdinetatik jasota.



Pablo Amunarriz da erakundeak Bidasoa bailaran duen ordezkaria



Hego Amerikan proiektu ugari kudeatzen ditu erakundeak

Hondarribiko Udaletik azken zazpi urte hauetan jaso ditu diru laguntzak. Pablo Amunarriz ordezkariak dioenez, "herrialde desberdinetan egiten ari gara lankidetzarako proiektuak. Hondarribitik jaso ditugun laguntzei esker, Ecuador, Congo eta Bolivian egitasmo ugari garatu ditugu, eta milaka pertsona lagundu ahal izan ditugu".

RESTAURANTE
ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Telf.: 943 64 42 12

Paseo Ramón Iribarren, nueva lonja - 20280 HONDARRIBIA

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

Lehen laguntza 2001.urtean jaso zuen Lankidetzarako Ingeniariak. Boliviako Santo Toribio de Mogrovejo herrian liburutegi bat eraikitzeko 5.400 euro bideratu ziren. Hurrengo urtean, 2002an, 11.250 euroko laguntza Afrikako Congo-ra joan zen, Likasi herriko auzo bat argiztatzeko.

2003an, Euskal Herrian hezkuntza berezian eraikitzen diren irizpideak Bolivian finkatzeko 6.700 euro kudeatu zituen erakundeak. 2004 eta 2005eko laguntza deialdietan, Udalak 14.000 euro eman zizkion Lankidetzarako Ingeniariak erakundeari, Congo-ko Kabulumbu herrian etxebizitzak eraikitzeko.



2006ko laguntza Congo-ko emakumeei zuzendu zen. Beraientzako formakuntza ikastaroak antolatzeko 7.000 euro prestatu ziren, urte bete iraun zuten ikastaro hauek antolatzeko.

Azkenik, 2007ko dirulaguntza Ecuadorren dagoen Franklin Tello ospitalerako medikamentuak erosteko izan zen. Nuevo Roca-

Haurren irribarrea ikusteak indarra ematen duela dio Erakundeko ordezkariak

fuerte herrian dago, Perurekin muga egiten.

1970 urteaz geroztik Manuel Amunarriz hondarribiarra han dago. Berak egin du laguntza eskatzeko beharrezkoa den txostena. Ospitala 1965ean eraiki zen, eta bost urte geroago Manuel jarri zen zuzendari. Ordutik hona, aldaketa asko izan ditu eraikinak, guztiak hondarribiar kaputxinoak aztertu eta bultzatuak.

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Antonio Arozenari zuzendutako bertsoak

Duela aste gutxi Antonio Arozena Semisarga konpainiako kapitainak kargua utzi du. Bere ordeztu Iñaki Yarza jarriko da aurtengo Alardean. Arozenari agur moduan Jexux Mari Mendizabalek honako bertso hauek idatzi ditu.



Jexux Mari Mendizabal



-1-

Semisarga da konpañia bat
historia dakarrena,
laurogei urte hauetan dabil
Hondarribian barrena.
Mila urte eta bederatzia ehun,
hoitazazpian aurrena
atera zena ez da galduko
sekula santa hurrena.

-2-

"Konpañiarik txikiena da"
jarri arren historian,
lurrin onena ontzi ttikian
egon ohi da teorian.
Eta urtetan egonagatik
ia galtzeko zorian,
orain bertako lagun garenok
beti gabiltza glorian.

-3-

Urteak baina aurrera doaz:
zenbat kapritxo dituzten...!
Atzea nola dantzatu noski
aurreak du erakusten:
gu garen mutil finekin zenbat
gerra egingo lituzken,
halere gure kapitain jaunak
aurten kargua du uzten.

-4-

Txomineneko baserrikoa
Antonio Arozena,
Euskal Herrian ez da izango
zu bezalako dozena.
Hemeretzitan gure kapitain
izanik bazoazena:
jaso ezazu Semisargaren
esker on txalo ozena!

-5-

Zenbat etxetan izaten baita
baten partez bi tximini,
zurean isil lanean Lupe
goitik behar da ipini...!
Bi tenienteri ere txaloak
nahi dizkiegu eskaini,
Muletako Anjeli eta
Olazabal Serafini.

-6-

Kapitain batek bestea dakar,
denok gaude gaur testigu.
Bejondeiola, ongi etorri,
aupa Iñaki Poxtigu!
Kargu berria gerta liteke
inoiz nahikoa kastigu,
Semisargako mutila da-ta
hutsik egingo ez digu.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88 20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Erleek osasunarentzat abantailak ekartzen dituzte

Erleek, aurreko artikulu batean aipatutako eztiak gain, beste bi produktu eskaintzen dizkigute; hain zuzen ere, polena eta erregina-jelea. Eztiarekin gertatzen den bezala, bi produktu horiek, balio nutritiboa izateaz gain, ahalmen terapeutikoak dituzte, printzipio aktiboak deituriko osagaiei esker.

Bai polena eta bai erregina-jelea ez dira janari soiltzat hartzen, janari-osagarriak dira. Polena ez dugu bera bakarrik erabiltzen otorduko jaki gisa, betiere, beste janari batzuekin batera erabili ohi da, janari horien eskaintza nutritiboa osatuz. Erregina-jelea, berriz, bakar-bakarrik hartu ohi da, otordutik at.

Erle langileek ekoizten duten erregina-jelearen konposizio nutritiboa polenaren oso antzekoa omen da, nahiz eta gai honetan aditu direnek erregina-jelearen konposizioa oso aldakorra dela dioten. Erregina-jelea oso goraipatua izan da azkenaldian, agian behar baino onura gehiago argudiatuz.

Adituen iritziz, gaur mintzagai ditugun polena eta erregina-jelea, biak oso produktu interesgarriak dira gure eguneroko dieta aberasteko. Hala ere,

parekotasun handia dutenez, ezin esan bata bestea baino hobea denik. Beraz, gure bitamina eta gatz mineralen beharrak lasaitasunez ase nahi izanez gero, aukera paregabea eskaintzen dute biek. Noizbehinka hartzea nahikoa izaten da.

Informazio gehiago nahi duenak, Txuntxumela denda bertan galdetu dezake, bestela ere, internet sarean hainbat informazio dago honen inguruan, wikipedian adibidez.



-SANITURI soja esnea 1 l: 1,95 €

2+1 dohainik eta 7+5 dohainik

-ECO-SALIN fruitu marmelada 325 gr: 3,68 €

1+1 dohainik

-LIMA gorri fruitu zukua + kaltzio azukrrrik gabe

1l: 3,65 €

1+1 dohainik eta 6+7 dohainik

-ECO-SALIN berde olibak 140 gr: 1,35 €

2+1 dohainik eta 3+3 dohainik

-BIOCOP intxaurrek 300 gr: 5,35 €

%50 unitate

-RAPUNZEL txokolate-intxaurrek, olo muesli

350 gr: 5,40 €

1 + 1 dohainik

-SOLE LUNA almendra pelatuak: 2,65 €

1 + 1 dohainik

-SANITURI soja flan 250 gr: 2,30 €

3 + 1 dohainik eta 4+2 dohainik

-Zereal-soja, banilla eta txokolate postre 500 gr:

3,95 €

3 + 1 dohainik

Arreta pertsonala

¡En HondarriBIO!

txuntxumela
tu pequeño **SUPER BIO**
SERVICIO A DOMICILIO
HENDAIA-HONDARRIBIA-IRUN
9943 641450
Santiago kalea, 33. Hondarribia
✉ **biotxuntxu@terra.es**

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN




HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituena. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" k idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebekin eta aitonaarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorrek tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatsuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eraman zituzten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriz, Euskadiko selekzioa osatzeko eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Histori-aurretik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzan izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astizaran eta Txomin Sagarazu.



PRAILEAITZ

Debako Praileaitz I aztarnategia babesteko liburu bat da. Artez betetako liburua, artea babesteko sortua. Egungo artistek sortua garai bateko artea ez galtzeko. Praileaitz I liburua Praileaitzen Lagunak elkarteak argitaratu du, arlo guztietako 210 artistaren ekarpenekin, euren lanarekin eta euren iritzi argiarekin. Luxuzkoa da kanpotik atzo aurkeztutako liburua. 29 x 29 zentimetrokoa, 240 orrialdekoa, azal gogorrekua eta hiru hizkuntzatara argitaratua, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerrian dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozei, Jose Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA

Telf: 943 64 25 25



Urte berria, jarduera berriak

EUSKADIKO UNIBERTSITATEETAKO EGUNEROKO GARRAIO GASTUAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZAK 2007-2008

Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Euskadiko Unibertsitateetako eguneroko garraio gastuak ordaintzeko dirulaguntzak 2007-2008. Epea: Urtarrilak 31a.

Baldintzak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean errolatuta egotea.
- 2007-2008 ikasturtean unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiten aritzea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikastegi batean edo goi-mailako ikastegi batean.
- Ezarritako baldintza ekonomikoak betetzea.
- Dagokion aginduan adierazitako irakasgai- edo kreditu-kopuruan matrikulatuta egotea.
- Egunero norbere ohiko bizilekutik unibertsitate-ikastegira joatea (distantziak 10 kilometrotik gorakoa izan behar du).
- 2007-2008 ikasturtean beste bekarik edo unibertsitate-garraiorako dirulaguntzarik ez jasotzea.

HERRIA JOKOAN GINKANA 2008



Lurrikara batek zure herria suntsitu du.

Parte hartu eta lagundu berreraikitzen!!!!!!

12 eta 30 urte bitartean badituzu eta EAEn bizi bazara anima zaitez.

Izena ematea abenduaren 3tik urtarrilaren 31ra arte www.herriajokoan.com/harribide web orrialdean.

Sariak: 2 MP3, 2 iPod, ordenagailua, kamera digitala eta 20 jolas kooperatibo.

Oinarriak, egutegia, sailkapenak,... den dena web orrialdean aurkituko duzue!!!!

Animatu eta partehartu herria berreraikitzen!!!!!!

ASTIALDIKO ZUZENDARIA IZATEKO IKASTAROA



Hezkide Eskolak Haur eta Gazteen astialdiko zuzendaria izateko ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren egutegia 2008ko otsailetik maiatzera izango da eta Donostian izango da.

Informazio gehiago:

Hezkide Eskola, Heriz Pasealekua, 82. 20008 Donostia.

Tfnoa: 943 311474 / 311475 - Faxe: 943 311476

Posta elek.: hezkide@euskalnet.net - Web or.: <http://www.hezkide.org>

Prezioa: 250 €

Epea: Otsailaren 1a.



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL
TABERNA · BAR



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Nola du izena kale honek?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Abenduko alean jarritako galderari ia 50 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Lupe Artano Kanpandegi** izan da. Bigarren saria, eta beraz, liburu-sorta, **Unai Garmendia Ugarterentzat** izan da.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Herriko kale garrantzitsu bat ikus dezakezue iruditan. Guztiok badakigu non dagoen kalea, handik askotan igarotakoak gara eta. Hala ere, bat baino gehiagok duda izango du kalearen izena gogoratzera-ko orduan. Izen bat baina gehiago izan du kaleak, baina urteak dira egungo izena daukala.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera, otsailaren 8a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gauetz, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Hondartzako lonja zaharra



Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxibategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilerok ez da zertan argazki berdinak atera behar. Horregatik, askotan eskatu dizuegu, irakurleoi, etxean irudi zahar bat baldin baduzue, Euskara Zerbitzura bidaltzea, aldizkarian gero argitaratu dadin.

Oraingo honetan, duela ia 100 urteko argazki bat dakarkizuegu. Hondarribiak, zenbait gunetan urte hauetan jasan duen aldaketa haundia ikusteko oso baliagarria den irudi bat da. Askok jakingo duzue garai batean arrainaren Lonja non zegoen, gaur egun Puntala dagoen tokian hain zuzen ere. Irudi hau ikusi besterik ez da egin behar ingurua nola aldatu den ikusteko. Bakoitzak ondo begira dezala irudia eta gaur egun nola dagoen ikus dezala.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzuenok, Udal Euskara Batzordera eramatea besterik ez duzute.



skindegia • gozategia



kafetegia

San Pedro 49, bajo
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 641 995

Zuloaga, 8
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 111 656



M.A.G.
ASESORIA AGINAGALDE

GESTIÓN:
CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:
* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
* ASEGUROAK

Abendua2007

JAIOTZAK ABENDUAN

- 3an:** OLAIA Fernandez Izeta, Donostiako Andoni Sebastian eta Hondarribiko Amagoiaren alaba.
- 5ean:** ELENE Amiano Kanpandegi, Lezoko Xabier eta Hondarribiko Oihanaren alaba.
- 5ean:** SARA GUADALUPE Campos Zarate, Donostiako Salvador Fernando eta La Union-ko (Kolombia) Claudia Alejandraren alaba.
- 5ean:** OLIVIA Etxeberria Burdain, Hondarribiko Jon Xarles eta Donostiako Idoiaren alaba.
- 5ean:** ION Etxeberria Burdain, Hondarribiko Jon Xarles eta Donostiako Idoiaren semea.
- 8an:** HAIZEA de Miguel Bandres, Hondarribiko Pedro eta Irungo Martaren alaba.
- 8an:** YASSINE Sliti Sliti, Tunezko Moncef Ben Ali eta Tunezko Neilaren semea.
- 9an:** TELMO Sanchez Solana, Donostiako Ignacio eta Hondarribiko Maria Estelaren semea.
- 10ean:** IRATI Lasalde Fernandez, Hondarribiko Xabier eta Irungo Maria Estherren alaba.
- 10ean:** DARIO Cascales Azkona, Alacant-eko Fulgencio Francisco eta Irungo Monicaren semea.
- 18an:** SAMUEL Castro Abiy, Hondarribiko Dario eta Addis Abeba-ko (Etiopia) Frehiwotren semea.
- 19an:** IRATI Oregi Oronoz, Goizuetako Pello eta Hondarribiko Maria Doloresen alaba.
- 19an:** LUKAS Perez Arri, La Yunta-ko (Guadalajara) Emilio eta Hondarribiko Jaioneren semea.
- 21ean:** HUGO Redondo Iglesias, Donostiako Alberto eta Irungo Maria Dianaren semea.
- 21ean:** MAIANE Moran Rojo, Hondarribiko Joseba eta Hondarribiko Estibalizen alaba.
- 25an:** INES Perez Villapun, Bilbaoko Jose Miguel eta Irungo Maria Estherren alaba.
- 28an:** AITOR Garcia Iza, Hondarribiko Iosu eta Irungo Maria Milagrosen semea.
- 29an:** MARKEL Agirre Lazaro, Hondarribiko Ignacio eta Donostiako Rosa Mariaren semea.
- 30ean:** MAIDER San Jose Amunarriz, Donostiako Jon eta Hondarribiko Ainararen alaba.



EZKONTZAK ABENDUAN

- 7an:** JUAN JOSE Iturrioz Niño, Irungoa, eta MARIA CRISTINA Zaporta Legarreta, Donostiakoa.
- 21ean:** ROMAN Gonzalez Isuskiza, Irungoa, eta MACARENA MARGARITA Rodriguez Orti, Donostiakoa.
- 22an:** ENMANUEL Ducourau, Dax-ekoa, eta NAGORE Badiola Irazusta, Hondarribikoa.
- 22an:** AITOR Ocio Larrañaga, Irungoa, eta LEIRE Kanpandegi Guerrero, Hondarribikoa.
- 29an:** LUIS PABLO Bailon Oronoz, Irungoa, eta ARANZAZU Larruskain Bolaño, Hondarribikoa.



HERIOTZAK ABENDUAN

- 2an:** ANA MARIA Ubarretxena Fischer, Donostiakoa, 51 urte, Donostia kalean.
- 5ean:** RAMONA Lekuona Tokizabal, Irungoa, 87 urte, Zuloaga kalean.
- 5ean:** EULOGIA Lizarraga Olazabal, Hondarribikoa, 87 urte, Jaitzubiako Zigarroa baserrian.
- 11n:** BLAS Marcos Minguez, Villahan-koa (Palencia), 69 urte, San Nicolas kalean.
- 15ean:** JESUSA Odriozola Manterola, Aiakoa, 91 urte, Foru kalean.
- 18an:** IGNACIO MARIA Iraola Martinez, Hondarribikoa, 51 urte, Ramon Iribarren kalean.
- 19an:** SABINA Etxaide Goikoetxea, Hondarribikoa, 78 urte, Soroetaberrin.
- 20an:** MERCEDES Irigoien Ezeiza, Oiartzungoa, 64 urte, Arkollako Arrobigain etxean.
- 21ean:** GERARDO Corral Hernandez, Ciudad Rodrigokoa (Salamanca), 52 urte, Santiago kalean.
- 21ean:** FELIX VICTORIANO Oronoz Salaberria, Hondarribikoa, 92 urte, Almirante Alonso kalean.
- 21ean:** JOSE Lopetegi Ibarguren, Lezokoa, 84 urte, Olabide etxadian.
- 28an:** CARLOS Arozena Urdangarin, Hondarribikoa, 72 urte, Amute kalean.
- 29an:** SARA GUADALUPE Campos Zarate, Hondarribikoa, 24 egun, Baserritar etorbidean.





Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK
jasotako datuak:

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK ABENDUAN

Altak:.....Jaiotzak: 13, eta kanpotik etorriak: 36

Bajak:.....Hildakoak: 20, eta herritik joanak: 25

Biztanle kopuru orokorra:.....16.430 bizilagun

ABENDUKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 410 euskaraz, 1.221 gaztelaniaz eta 23 bestelakoak. Guztira: 1554 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 17 euskaraz, 54 gaztelaniaz eta 1 bestelakoak. Guztira: 72 liburu.

Bazkide berriak: 5 gizon eta 6 emakume. Horietatik 7 heldu eta 4 haur. Guztira 11.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: VAN GENECHTEN, Guido.-

Pmaitagarria zarelako.- Ibaizabal.

Gaztelaniaz: IBAÑEZ,F.-

Mortadelo y Filemon.- Ediciones B.

Helduak:

Euskeraz: ATXAGA.-

Behi euskaldun baten memoriak.- Pamiela.

Gaztelaniaz: FALCONES, Ildelfonso.-

La catedral del mar.-Grijalbo.

ABENDUKO EGURALDIAREN DATUAK.

Temperaturarik gorena:17,8° C, hilaren 4an.
Temperaturarik beheena:-2,0° C, hilaren 16an.
Bataz besteko tenperatura:8,7° C.
Bataz besteko hezetasuna:% 76.
Euri-litroen kopurua:92,1 litro.
Egunik euritsuen:hilaren 9an 26,3 litro.
Euri indartsuenen unea:hilaren 10eko 00,55etan, 0,306 litro/orduko.
Egun euritsuak:14 egun.
Elur egunak:0 egun.
Kazkabar egunak0 egun.
Ekaitz egunak3 egun.
Behe-laino egunak:egun 1.
Ihintz egunak:10 egun.
Zeru oskarbi:6 egun.
Zeru lainotua:14 egun.
Zeru iluna:11 egun.
Eguzki kopurua:99,3 ordu.
Bataz besteko presioa:1025,2 milibar.
Presiorik gorena:1034,2 milibar, hilaren 27an.
Presiorik beheena:1008,6 milibar, hilaren 9an.
Haizea >55 Km/ord.egun 4.
Haizerik indartsuena:hilaren 9ko 12,20tan, 87 Km/orduko.

(Hondarribiko aireportutik jasoak).

URTE GUZTIKO EGURALDIAREN DATUAK

Temperaturarik gorena:37,8° C, abuztuaren 28an.
Temperaturarik beheena:-4,5° C, urtarrilaren 27an.
Bataz besteko tenperatura:14,6° C.
Bataz besteko hezetasuna:% 75.
Euri-litroen kopurua:1476,8 litro.
Egunik euritsuen:abuztuaren 19an 79,4 litro.
Euri indartsuenen unea:ekainan 9ko 17,52tan, 0,558 litro/orduko.
Egun euritsuak:189 egun.
Elur egunak:egun 1.
Kazkabar egunak10 egun.
Ekaitz egunak30 egun.
Behe-laino egunak:11 egun.
Ihintz egunak:120 egun.
Zeru oskarbi:34 egun.
Zeru lainotua:171 egun.
Zeru estalia:160 egun.
Eguzki kopurua:1684,3 ordu.
Bataz besteko presioa:1019,3 milibar.
Presiorik gorena:1040,8 milibar, urtarrilaren 2an.
Presiorik beheena:996,4 milibar, azaroaren 20an.
Haizea >55 Km/ord.egun 36.
Haizerik indartsuena:otsailaren 14ko 10,50tan, 108 Km/orduko.

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18

Tel.: 943 64 4846 - 20280 HONDARRIBIA





**URTE
25
ANOS**

Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com



 Sensor Aire	 Separador viento	 Mando a distancia	 Panel deslizable Screen
 Enrollable Screen	 Panel deslizante Tela	 Veranda	

DOBLE A
www.doble-a.com

Tel: 943 667 003
Amute, 8 bajo C (Frente Aeropuerto) - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)

 SUMINISTROS ELECTRICOS	 OSAGAI ELEKTRIKOAK
	

C\ Salvador Etxeandia, 6 Bajo Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48 20304 Irún